

Bizkaia

Barakaldo

Desierto

---

**DESERTUKO GELTOKIA  
ESTACION DE DESIERTO**



Barakaldoko Desertu geltokia 1888an eraiki zuten eta, Bilboko Olabeaga eta Portugaleteko La Canilla geltokiekin batera, Bilbao-Portugalete trenbideko jatorrizko geltoki bakarretakoa da. Horrenbestez, trenbide honen jatorria erakusten duen aztarna material bezala, geltokia balio handiko ondarea da. Eraikinaren oinplanoa angeluzuzena da, eta altxaeran hiru atal desberdintzen dira: erdikoa (garaigoa) eta albo banatan dituen hegalak. Teilitua egurrezko armadura batean bermatzen da eta, irtena denez gero, bere proiekzioa fatxadei gainjartzen zaio. Fatxadak soiltasun handikoak dira eta bere ezaugarri nagusiak inposta-lerroak eta aurrealdea estaltzen duten elementu bertikalak dira, paramentuei erregulartasuna eta erritmoa ematen dietenak. Monumentu izendatu zuten 2008an.

La estación de Desierto en Barakaldo fue construida en 1888 y –junto a la estación de Olabeaga, en Bilbao, y la de La Canilla, en Portugalete–, es una de las pocas estaciones originarias del Ferrocarril Bilbao-Portugalete. Posee así un importante valor patrimonial, como resto material que testimonia los orígenes de esta vía ferroviaria. Se trata de un edificio de planta rectangular, que en alzado se resuelve en tres cuerpos diferenciados: uno central, de mayor altura, enmarcado por dos alas laterales. El tejado apea sobre armadura de madera y se proyecta sobre las fachadas en común voladizo. Las fachadas, de gran sobriedad, se caracterizan por las líneas de imposta y enfajados verticales que las regularizan, aportando ritmo a los paramentos. Fue declarada monumento en 2008.